# Hobetuz, langileak garai berrietara egokituz




GARI GARAIALDE

■■■ Hobetuz-en bitartez langileek prestakuntzako ikastaroak egiten dituzte.

ETENGABEKO prestakuntza gero eta indar handiago hartzen ari da, batez ere teknologia berriak direla eta, egunez egun gauza berri ugari merkaturatzen baita.

1996az geroztik, Hobetuz erakundea EAEko etengabeko prestakuntzaz arduratzen da. Eusko Jaurlaritzak, patronalak eta sindikatuek sortu zuten. Etengabeko prestakuntza langileei bideratua dago. Langileak lanorduen barruan bere arloari loturiko gaiak lantzen ditu, horretan adituak diren profesionalen eskutik.

Enpresek beraiek eskatzen dituzte euren langileentzat behar dituzten ikastaroak. Ikastaro guztiak erabat subentzionatuta daude, eta langileak prestasuna baino ez du jarri behar.

## ■ Helburuak

Bezeroarengandik hurbil egoteak lehentasun osoa izan du beti Hobetuz-entzat, eta, horrexegatik, egoitzak ditu EAEko hiru hiriburuetan. Hala, hurbiltasun horren bidez, enpresen beharrizanak zein diren hobeto jakin eta, ondorioz, beharrizan horiei erantzuteko aukera hobeak izaten ditu Hobetuz-ek.

Hobetuz-en asmoa langile, enpresa eta prestakuntza zentroek bat egitea da, denok batera EAEko eta bertako langileen benetako beharrizanei erantzuteko. Hobetuz-en betebeharra etengabeko prestakuntzaren kudeaketa eta zuzendaritzaren ardura hartzea da eta, oro har, enpresa, langile eta hezkuntzako zentroen artean etengabeko prestakuntzaren interesa eta jarduera ahalik eta gehien eta eraginkortasun osoz hedatzeko baldintzak sortzea.

**Hobetuz-ek, prestakuntza iraunkorraren kudeaketa eta zuzendaritzaren ardura hartu zuen, 1996a geroztik**

## ■ Homologazio prozesuaren antolaketa

Hobetuz-eko arduradunek, bestalde, erakundearen betebeharrak zabaldu nahi dituzte: «Orain arte Hobetuz-ek etengabeko prestakuntzaren kudeaketaren eta zuzendaritzaren ardura hartu du. Gehiago bete nahi dugu. Hemendik bideratzen den prestakuntzan kalitatea eman nahi dugu. Helburu horri eutsiz, homologazio prozesua antolatzen ari gara. Hobetuzekin batera lan egiten duten ikaskuntzako zentroak homologatuak izatea lortu nahi dugu. Bestalde, prestakuntza eguneratzea eta enpresen zein zentroen artean dauden beharrei ere erantzun nahi genieke etorkizunean».

Bien bitartean, Hobetuz erakundearen betebeharra da jasotzen dituzten proposamenak bildu, dokumentuak aztertu eta horren arabera diru laguntza eman.

Erakundeak gehienbat enpresa txiki eta ertainei eskaintzen die bere zerbitzuak, horiek baitira, hain zuzen ere, arazo gehien dutenak prestakuntza eskaintzerakoan.

## ■ Teknologia berriko ikastaroak

Hobetuz-ek mota askotako ikastaroak eskaintzen ditu. Hala ere, teknologia berriekin lotura dutenak dira ugarienak. Informatika, hizkuntzak, kalitatea eta segurtasuna nabarmentzen dira eskaintzen artean. Akademiek, ikastegiek eta hezkuntzarekin zerikusi duten erakunde askok eskaintzen dituzte etengabeko prestakuntzako ikastaroak. Etorkizunean, berriz, goi mailako Lanbide Heziketako institutuetatik bidera daiteke etengabeko prestakuntza, horiek baitaude horretarako prestatuen.

Gisa berean, ISO 9002 kalitatearen ziurtagiria duten ikastetxeak klaseen %60 etengabeko prestakuntzara bideratzera behartuta daude; gainerakoak hezkuntza araututara bideratu behar dituzte.




### BIZKAIKO IKASLANi ATXIKITUTAKO ZENTRUAK

1 INSTITUTO "MINAS" INSTITUTUA (BARAKALDO) - Tel.: 94 437 61 04
2 INST. "NICOLAS LARBURU" INSTITUTUA (BARAKALDO) - Tel.: 94 437 50 02 / 03
3 INST. "BIDEBIETA" INSTITUTUA (BASAURI) - Tel.: 94 449 15 47
4 INST. "I. AROZENA-BARRUETA TAR BENITO" INSTITUTUA (BERMEO) - Tel.: 94 618 67 40 / 39
5 INST. "ELORRIETA-ERREKAMARI" INSTITUTUA (BILBAO) - Tel.: 94 475 94 25
6 INST. "EMILIO CAMPUZANO" INSTITUTUA (BILBAO) - Tel.: 94 433 33 05
7 INSTITUTO "ESCURCE" INSTITUTUA (BILBAO) - Tel.: 94 444 44 08 / 43 58
8 INST. "TXURDINAGA-ARTABE" INSTITUTUA (BILBAO) - Tel.: 94 412 57 12 / 60 99
9 INST. "ATEGORRI-TARTANGA" INSTITUTUA (ERANDIO) - Tel.: 94 467 53 11 / 52 61
10 INSTITUTO "ANDRA MARI" INSTITUTUA (GALDAKAO) - Tel.: 94 456 27 20
11 INSTITUTO "FADURA" INSTITUTUA (GETXO) - Tel.: 94 430 64 44
12 INSTITUTO "IURRETA" INSTITUTUA (IURRETA) - Tel.: 94 681 57 08 / 12
13 INST. "ESCUELA DE HOSTELERIA" INSTITUTUA (LEIOA) - Tel.: 94 601 24 46
14 INST. "MUNGIA" INSTITUTUA (MUNGIA) - Tel.: 94 674 11 10 / 06 00
15 INSTITUTO "ERREPELAGA" INSTITUTUA (PORTUGALETE) - Tel.: 94 495 59 03 / 50 13
16 INSTITUTO "CONSTRUCCION" INSTITUTUA (SANTURTZI) - Tel.: 94 493 80 11
17 INSTITUTO "SAN JORGE" INSTITUTUA (SANTURTZI) - Tel.: 94 461 84 22
18 INST. "SATURNINO DE LA PEÑA" INSTITUTUA (SESTA0) - Tel.: 94 496 13 55
19 INST. "URRITXE-ZORNOTZA" INSTITUTUA (AMOREBIETA-ETXANO) - Tel.: 94 673 20 12 - 02 51
20 I.E.S. ONDARROA-ITURRIOZ B.H.I. (ONDARROA-LEKEITIO) - Tel.: 94 683 00 98 - 684 13 11
21 I.E.S. BARRUTIALDE B.H.I. (ARRATZU) - Tel.: 94 625 11 43 - 75 27

### ARABAKO IKASLANi ATXIKITUTAKO ZENTRUAK

1 INST. E.S. ANITURRI (AGURAIN) - Tel.: 945 30 04 00
2 INSTITUTO ZARAOBE (AMURRIO) - Tel.: 945 39 30 00
3 INST. TEC. DE LA CONSTRUCCION DE ZIGOITIA (ZIGOITIA) - Tel.: 945 46 41 33
4 I.E.S. SAMANIEGO (LAGUARDIA) - Tel.: 941 60 01 12 / 60 02 81
5 I.E.S. CANCILLER AYALA-GREGORIO MARAÑON (LLODIO) - Tel.: 946 72 18 70
6 I.F.P. MURGIA (MURGIA) - Tel.: 945 43 02 28
7 I.T.S. CIUDAD JARDIN (VITORIA-GASTEIZ) - Tel.: 945 23 37 14
8 ESC. DE HOSTELERIA DE GAMARRA (VITORIA-GASTEIZ) - Tel.: 945 25 80 25 / 81 00
9 I.F.P. SUPERIOR MENDIZABALA (VITORIA-GASTEIZ) - Tel.. 945 13 46 01

### GIPUZKOAKO IKASLANi ATXIKITUTAKO ZENTRUAK

1 ARRASATE-ARETXABALETAKO INSTITUTUA (ARETXABALETA) - Tel.: 943 79 79 00
2 UROLAKO IKASTOLA (AZKOITIA-AZPEITIA) - Tel.: 943 85 21 74 / 22 65 - 81 26 65 / 37 70
3 G.B.L.H.I. MIGUEL ALTUNA I.E.F.P.S. (BERGARA) - Tel.: 943 76 38 40
4 DONOSTIAKO ERAIKUNTZA INST. / INST DE LA CONSTUCCION (DONOSTIA-SAN SEBASTIAN) - Tel.: 943 35 33 15
5 I.E.F.P.S. "EASO" G.B.L.H.I. (DONOSTIA-SAN SEBASTIAN) - Tel.: 943 45 54 22 / 51 45
6 I.E.S. "XABIER ZUBIRI-MANTEO" B.H.I. (DONOSTIA-SAN SEBASTIAN) - Tel.: 943 32 60 88 - 29 18 13
7 MARTUTENEKO B.H.I. (DONOSTIA-SAN SEBASTIAN) - Tel.: 943 43 36 55 / 37 11
8 I.F.P.E. ESCUELA DE ARMERIA / ARMERIA ESKOLA G.M.L.H.I. (EIBAR) - Tel.: 943 20 32 44
9 B.H.I. "UNI EIBAR - ERMUA" I.E.S. - Tel.: 943 20 84 44 - 17 62 57
10 ELGOIBARKO HERRI INSTITUTUA (ELGOIBAR) - Tel.: 943 74 80 19
11 HERNANI INSTITUTUA "A LABAKA" (HERNANI) - Tel.: 943 55 11 88 - 55 19 58
12 I.E.S. (IIT) ‚AQUINA HERRAMIENTA B.H.I. (BTI) (ELGOIBAR) - Tel.: 943 74 41 32
13 I.E.F.P.S. "BIDASOA" G.B.L.H.I. (IRUN) - Tel.: 943 61 21 46 / 98 86
14 "PLAIAUNDI - IRUN" INSTITUTUA (IRUN) - Tel.: 943 61 75 47
15 I.E.S. "OLAZABAL" B.H.I. (LEGAZPI) - Tel.: 943 73 43 40
16 I.E.S. "MUTRIKU" B.H.I. (MUTRIKU) - Tel.: 943 60 36 27 / 35 45
17 OÑATIKO B.H. INSTITUTUA (OÑATI) - Tel.: 943 78 21 50 / 12 68
18 I.E.F.P.S. "CIUDAD LABORAL DON BOSCO" (ERRENTERIA) - Tel.: 943 51 04 50 / 54 / 58
19 ZAMALBIDE INSTITUTUA (ERRENTERIA) - Tel.: 943 51 60 99 / 52 06 40
20 I.E.S. (I.I.T.) "ESCUELA DE PAPEL" (TOLOSA) - Tel.: 943 67 29 00
21 I.E.F.P.S. "TOLOSALDEA" G.B.L.H.I. (TOLOSA) - Tel.: 943 65 11 47 / 06 64
22 I.E.F.P.S. "USURBIL" G.B.L.H.I. (USURBIL) - Tel.: 943 36 46 00 / 17 94 / 65 10
23 I.F.P. "MONTE ALBERTIA (ZARAUTZ) - Tel.: 943 13 42 23
24 ZUMAIAKO INSTITUTUA (ZUMAIA) - Tel.: 943 86 08 09